

01/07 AKTA

2007KO URTARRILAREN 23AN EGINDAKO BATZARRA

Mendexan, udaletxeko batzar aretoan, bi mila eta zazpiko urtarrilaren hogeita hiruan, goizeko bederatzi eta erdietan, behean aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, Luis M^a Ocamica Gogenola alkate jauna buru dela.

Bertaratuak:

Zinegotziak: Juan Miguel Txakartegi Zendoia
Martin Aranzamendi Gabiola
Txomin San Martin Badiola
Miguel Iturbe Sarasola
Maria Magdalena Gabiola Arostegi
Jose Manuel Laka Arrillaga

Idazkaria: Miren Begoña Laka Ortuondo

Bertaratu ez direnak:

Bat ere ez

Alkate-udalburu jaunak batzarrari hasiera eman ondoren, aurreko batzarreko akta irakurri eta aho batez onetsi da.

Jarraian, ondorengo erabakiak hartu dira:

1.- LEHEN OKUPAZIORAKO HIRIGINTZ BAIMEN ESKAERA.- L&O Arquitectura y Proyectos Inmobiliarios, S.L. enpresak, Zelaia auzoko U.E. Zelaia II exekuzio unitateko A4 partzelan eraikitako etxebizitza bakarrarentzako lehen okupaziorako hirigintz baimena eskatu dute.

Kontuan izanik eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa eta udal arkitektu aholkulariaren txostena; baita ere eskollera bukatuta dagoela, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Zelaia auzoko U.E. Zelaia II exekuzio unitateko A4 partzelan kokaturiko L&O Arquitectura y Proyectos Inmobiliarios, S.L. enpresaren jabetzako etxebizitza bakarrerako lehen okupaziorako baimena ematea.

2.- CONSUELO PRIEGUE ANDREARI, EGOKI BADA, OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA.- Consuelo Priegue Blanco andreak Zelaia auzoko Herriko Plaza 1, 2.C etxebizitzan sukalde konpontzeko obrak egiteko aurkeztu duen udal baimen eskaeraren berri eman da, obra honen aurrekontua 2.637,94 eurokoa izanik.

Udalbatzak aho batez eskatutako obretarako udal baimena ematea erabaki du, ondorengo baldintzapean:

1) Udaletxean aurkeztutako agiriei loturik burutu beharko dira obrak.

2) Obrak burutzeko epea urte betekoa izango da, baimen hau jakinarazten denetik zenbatuta. Epe hau igarotzen denetik lizentziaren balio eta ondorioak galduko dira.

Aipatutako lizentzi epea luzatu ahal izango da, urte bete horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarriak azaltzen badu.

3) Lizentzia hau jabekuntza eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

3.- GAS DEPOSITOA JARDUERA EZARTZEKO UDAL BAIMENA, EGOKI BADA, EMATEA.- Juan M^a Galarraga Akarregi jaunaren eskaeraz, udalerrri honetako Liko auzoko Arrasate baserriaren zerbitzurako gas depositoa jarduera ezartzeko udal baimena emateko espedientearen berri emanda.

Kontutan izanik Eusko Jaurlaritzako martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuaren arabera Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako jarduera lizentzia lortzetik salbuetsia dagoela jarduera hau.

Kontutan izanik udal arkitekto aholkulariak emandako aldeko txostena.

Udalbatzak aho batez erabaki du:

Juan M^a Galarraga Akarregi jaunari, Liko auzoko Arrasate baserriaren zerbitzurako, gas depositoa jarduera ezartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzak bete beharko direlarik:

a) Instalakuntza aurkeztutako eskaera eta proiektuari zehazki lotuko da.

4.- LAPERRI PLATAFORMAREN MOZIOA.- Mendexako Laperri Plataformak Mendexako Udalari mozioa aurkeztu dio euskal preso politikoen egoerak okerrera egin duela salatuz. Egoerari buruzko azalpenak agertu ondoren, konpromiso hauek onartzeko eskatzen diote Mendexako Udalari:

“- Mendexako Udalak bere esku dituen bideak erabiliko ditu Ibaetako dokumentuan agertzen diren Euskal Preso Politikoen eskubideak errespetatuak izan daitezen.

- Mendexako herritarrei, eta oro har euskal jendarteari presoen egoera larriaz jabetu, aldarrikapen hauekin bat egin eta aktiboak izan daitezela eskatzen die.

- Hileko lehengo domeketan Mendexan deitzen diren preso politikoen aldeko konzentrazioetan parte hartzeko deia luzatuko zaie herritarrei udaleko ohizko bideak erabiliaz.

- Ibaetako dokumentuaren inguruan egin ditzakeen ekintzak bultzatu eta beraietan parte hartuko du udal honek.

- Eta aldi berean Euskal Presoak Euskal Herrira ikurra berriro hartu eta bere presentzia publiko masiboa ziurtatuko du. Horretarako Udaletxeko balkoiaz gain herriko beste eraikin publikoetan ere jarriko du eta Udal honek kaleratuko dituen dokumentu guztietan Euskal Presoak Euskal Herrira zigilua agertzea bermatuko du.

- Hartutako konpromisook herritarrei jakinaraziko dizkio Udalak ohiko bideak erabiliaz.”

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Aurkeztutako mozioa ez onartzea, EAJk ez baitu onartzen Ibaetako dokumentua. Dena den, Mendexako Udalak agertu nahi du gaixotasun larriak izan edo zigorra beteta dituzten presoak aske uztearen alde dagoela.

5.- PASCUAL URKIAGA JAUNARI, EGOKI BADA, OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA.- Pascual Urkiaga jaunak Leagi auzoan, Nekazal Katastroko 1 poligonoko 174 partzelan ortugintzan erabiltzeko negutegia, 15x8 metrokoa, jartzeko aurkeztu duen udal lizentzi eskaera ikusirik, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Eskatutako obretarako udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

1) Udaletxean aurkeztutako agiriei loturik burutu beharko da behin-behineko instalazio hau.

2) Baimen hau behin-behineko izaerarekin ematen da.

3) Instalakuntza egiterakoan, bereziki zaindu beharko dira segurtasun neurriak.

4) Obrak burutzeko epea urte betekoa izango da, baimen hau jakinarazten denetik zenbatuta. Epe hau igarotzen denetik lizentziaren balio eta ondorioak galduko dira. Aipatutako lizentzi epea luzatu ahal izango da, urte bete horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarriak azaltzen badu.

5) Lizentzia hau jabekuntza eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

6.- DELFIN ORIA GUTIERREZ JAUNAREN ESKAERA.- Delfin Oria Gutierrez jaunak, Gernikan bizi denak, aurtengo udaldian Karraspioko hondartzan izozkiak saltzeko kiosko bat jartzeko aurkeztutako eskaeraren berri eman ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Delfin oria Gutierrez jaunari, 2007ko udaldian, Karraspioko hondartzan izozkiak, edariak eta antzerakoan salmentarako kiosko bat jartzeko udal baimena ematea, ondoren azaltzen diren baldintzapean:

1) Lekua: Domeinu publikoko gunetik kanpo jarri beharko da, bide ondoan, ahoz adieraziko zaion lekuan.

2) Udalari ordaindu behar zaion kanona MILA HIRUREHUN ETA LAU EURO ETA HOGEITA HAMAR ZENTIMO (1.304,30 €) izango da. Ezarritako kanona, 2006an ordaindutako kanonari 2006ko Kontsumoko Salneurrien Indizearen gehikuntza (2,7%) aplikatzearen emaitza da.

Zenbateko osoaren ordainketa, kioskoa ireki aurretik egin beharko da Mendexako Udaletxean. Beharkizun hau ez betetzeak, baimen hau efekturik gabe utziko du.

3) Baimen epealdia: Kioskoa, hondartzarako denboraldi ofiziala hasten denetik irailaren 30erarte egon daiteke irekita. Epealdi hau bukatuz gero kioskoa kendu egin beharko du.

7.- GARBIÑE LOPEZ ARRITOLA ANDREAREN ESKAERA.- Garbiñe Lopez Arritola andreak, Lekeition bizi denak, aurtengo udaldian Karraspioko hondartzan izozkiak saltzeko kiosko bat jartzeko aurkeztutako eskaeraren berri eman ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Garbiñe Lopez Arritola andreari, 2007ko udaldian, Karraspioko hondartzan izozkiak, edariak eta antzerakoan salmentarako kiosko bat jartzeko udal baimena ematea, ondoren azaltzen diren baldintzapean:

1) Lekua: Domeinu publikoko gunetik kanpo jarri beharko da, bide ondoan, ahoz adieraziko zaion lekuan.

2) Udalari ordaindu behar zaion kanona MILA HIRUREHUN ETA LAU EURO ETA HOGEITA HAMAR ZENTIMO (1.304,30 €) izango da. Ezarritako kanona, 2006an ordaindutako kanonari 2006ko Kontsumoko Salneurrien Indizearen gehikuntza (2,7%) aplikatzearen emaitza da.

Zenbateko osoaren ordainketa, kioskoa ireki aurretik egin beharko da Mendexako Udaletxean. Beharkizun hau ez betetzeak, baimen hau efekturik gabe utziko du.

3) Baimen epealdia: Kioskoa, hondartzarako denboraldi ofiziala hasten denetik irailaren 30erarte egon daiteke irekita. Epealdi hau bukatuz gero kioskoa kendu egin beharko du.

8.- UDAL SARETIK UREN TOMA BAT EGITEKO JON ANDER ORUE JAUNAK AURKEZTUTAKO ESKAERA.- Liko auzoan, Kurlutxu 1, 2.D etxebizitzaren erabilerarako, udal saretik uren toma bat egiteko udal baimena eskatuz, Jon Ander Orue Olivares jaunak aurkeztutako eskaeraren berri eman ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Udal ur saretik toma bat egiteko udal baimena ematea, aurretiaz toma eskubideengatik 180,30 euro ordaindu beharko dituelarik. Uren toma udal zerbitzu teknikoak esaten duen tokian egin beharko da.

9.- EDATEKO UR SAREAREN ZAINZA ETA KONTROL UNITATEKO ARDURADUNA IZENDATZEA.- Idazkariak azaldu du Eusko Jaurlaritzako Osasun Saitetik agertu digute Zaintza eta Kontrol Unitatea berrantolatzeke, bere ustez ez baitu ondo funtzionatzen. Hori dela eta Urgiro, S.C. enpresako arduradun Gorka Urruzuno prest agertu da Zaintza eta Kontrol Unitateko arduraduna izateko, hileroko 250,00 euro gehi BEZeko prezioarekin.

Kontuan izanik, proposatutako eran askoz errazagoa izango dela gestioa, Uren Partzuergoan sartzen garan bitartean, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Mendexako edateko uren sarearen Zaintza eta Kontrol Unitateko arduradun izendatzea Urgiro, S.C. enpresako Gorka Urruzuno jauna. Urte beterako da izendapena, urtero luzagarria, udalaren beharrizanen arabera. Kostua 250,00 €gehi BEZ.

10.- DIRULAGUNTZA ESKAERAK.- Idazkariak, heldutako dirulaguntza eta udal aportazio eskaeren berri eman du.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Aurkeztutako dirulaguntza eskaera guztiak helburu interesgarriak eta txalogarriak dituztela onartu arren, Udalak errekurtsio mugatuak dituen ezinezkoa da denei laguntza ematea.

2) Ondorengo dirulaguntza onartzea:

- Ibilaldia 2007ri, 150,00 €

11.- MENDEXAN BETERANOEN ESKU PELOTA TXAPELKETA ANTOLATZEKO DIRU LAGUNTZA ESKAERA.- Mendexako Jai Batzordeak eskaera aurkeztu du, Udal honengandik diru laguntza eskatuz Mendexako frontoian

2007ko urtarrila eta martxoa bitartean beteranoen esku pelota txapelketa (35 urtetik gorakoentzat) antolatzeko gastuei aurre egiteko.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du 595,00 €euroko diru laguntza ematea Mendexan 2007ko urtarrila eta martxoa bitartean beteranoen esku pelota txapelketa antolatzeko.

12.- GASTUAK.- Ondorengo gastu eta fakturak aurkeztu dira, beharbada onartzeko:

- Luis M^a Okamikari, 800,56 €
- Zelaia 1 eta 2 Jabe Elkarteari, 21,61 €eta 54,00 €
- Zerbyteren faktura, 37,95 e.
- Wurthen fakturak, 47,56 €eta 493,00 €
- Juan Miguel Txakartegiri, 992,00 €
- Miren Bego Lakari, 170,38 €
- Fermin Burdindendaren faktura, 110,45 €
- Hika-Mika Inprimategiaren faktura, 301,76 €
- Ongizanen faktura, 641,86 € 641,86 €eta 754,00 €
- Iragarriren faktura, 213,44 €
- Topagunearen faktura, 818,14 €
- Irratibide, S.A.ren faktura, 365,40 €
- Lea Artibai Landa Garapenerako Alkarteari, 1.399,74 €
- Electro Vizcaya, S.A.ren faktura, 207,67 €
- Agal Motorren faktura, 1.701,59 €
- Azoka, C.B.ren faktura, 1.372,81 €
- Elektrizitate Roldanen faktura, 408,81 €eta 6.083,93 €
- Ofiserviceren faktura, 449,01 €
- Bide Ondoren faktura, 879,87 €
- Jose M^a Arriolaren faktura, 6.632,00 €
- Canonen faktura, 13,84 €
- Font. Letraukua, S.L.ren faktura, 12,88 €
- Itxasdenda Begoñako Amaren faktura, 177,03 €
- Urgioren faktura, 1.353,02 €

Udalbatzak aurkeztutako gastuak onartzea eta ordaintzea erabaki du.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburu jaunak bilera amaitutzat eman du eguerdiko hamabiak direnean eta nik, Idazkariak, erabakitakoak jasotzeko akta hau egin dut.